

Nu!



Jada zabalik dago
KZgunea, Txaramunton



**UHL izan da nagusi, baina
nor izango da alkate?**

LOURDES LARRAÑAGA

estetika zentroa



Iruizku kalea, 12. behea Tel: 943 36 28 87

- Gorputz perfektu baterako edertasun tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak eta dieta pertsonalizatuak
- Depilazioa laser-medikuarekin

IREKI BERRIA!



BBVA

Errekatziki kalea, 1 · 20170 USURBIL Tel: 943 377 155

UDARAKO GOIZAK ONDO PASATZEKO...

UDAJOLAS 2003 USURBIL



UDAJOLAS

× UDA TXIKI 2-3/3-4/ 4-5 urte. Adin hauetara egokitu-tako ekintzak

× UDA ERDI 6-7 urte.

Egunero joku ezberdin bat:
espaziora bidaia, munduari itzulua,
asterix eta obelix...

× UDA GAZTE (8-11) urte.
Eskurtsioak, bizikletan ibili,
eskalatu

ORDUTEGIAK

Goizez:

9:30- 13:00

IZENA EMAN NAHI BADUZU , DEITU TELEFONO HONETARA:

637 75 87 10 arratsaldez

Izena emateko azken eguna ekainaren 21a

Arduradunak pedagogoak eta monitore esperientziadunak izango dira

TXANDAK

1goa Ekainaren 30etik- uztailaren 15era

2.a Uztailaren 16tik- 30era

3.a Abuztuaren 1etik- 14ra

4.a Abuztuaren 18tik- 29ra



Txirrikitutik



Egilea: Jose Mari Zabala,
Kaleberri

1970. hamarkada
Udal fototeka

Azkeneko hamarkada honetan gure herriak aldaketa handia izan du eta jarraituko du aldatzen. Beste behin, urteetan atzera egin eta garai bateko oroitzapenez gogoeta egiteko aukera dakarkizuet oraingoan ere.

Jose Mari Zabala argazkilariak 1970. hamarkadan atera zuen argazki hau, Salbatore elizako dorretik seguruenik. Bertan ageri diren zenbait eraikin dagoeneko ordezkatu edo falta direla ohartuko gara; beste batzuk ordea oraindik bere horretan jarraitzen dute. Etxe multzoaren erdian herriko Kale Nagusia ageri da. Ezkerrean goialdetik lehendabizi, Barrenetxea, segidan Maistraenea (garai bateko Korreos) eta Txaramunto (atzean Atxega jauregia eta Gorriti baserria) ikus ditzakegu eta ezkerretik eskuinera lehen aipatutakoen aurrean, Kolejioa, Arruenea berri, Koxkorillenea, Organistenea eta Alkartasuna sindikatua.

Gaur egun Maistraenea, Txaramunto, Organistenea eta Alkartasuna sindikatuko etxeak desagertu dira baina horien lekuan etxebizitza dotoreak egin dira. Berriz ere leku beretik argazkia aterako bagenu horrelako irudi zoragarria lortuko al genuke?

Zalao Arnaiz Ibareguren,
fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net



OHARRA: Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta Noaua!ko Txirrikituko atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez udal fototekarekin harremanetan, udaletxeko 2. solairuan gaude (9:00etatik 14:00etara).

Bestela, 943371951 telefonoan edo fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net e-postan aurkituko gaituzu. Garai bateko argazkien bidez gure herria hobeto ezagutzeko aukera izango dugu. Anima zaitez!

N u !

Argitaratzailea : Noaua! Kultur Elkarte

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net

Web orria: www.noaua.com

Kazetarien koordinatzailea : Imanol Ubeda.

Kazetariak: Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta.

Publizitatea: Jon Rueda.

Zuzentzailea: Eneko Harreguy.

Kolaboratzaileak: Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe, Zalao Arnaiz eta Agurtzane Solaberrieta.

Informatika: Pili Lizaso eta Oskar Angulo.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Aurkibidea

MIKEL USABIAGAREN ZUTABEA _____ 4. ORR.

KONTZEJU TXIKIA _____ 5. ORR.

Jada martxan da KZgunea,
Interneten trebatzeko egoitza

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. ORR.

HAUTESKUNDE EMAITZEKIN BUELTAKA _____ 10. ORR.

JOXE ANTONIO ALTUNAREN AGURRA _____ 12. ORR.

SAGARDO EGUNEKO IRUDIAK _____ 14. ORR.

USURBILGO II. PILOTA ASTEA _____ 17. ORR.

ARANTXA MENDIZABAL NOAU! TXIKIN _____ 18. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

AZALA

Azalaren egilea, Zalao Arnaiz.

Zutabea !



MIKEL USABIAGA

Ez dago eskubiderik!

Zorionez euskaldun jaio ginen eta zoritxarrez espainolek eta frantsesek dituzten oinarritzko eskubideak ukatzen dizkigute. Nonbait ez gara parte onekoak. Gainera gu gara biolentoak, antidemokratikoak eta baztertzailak. Beno, batzuk behintzat halaxe omen. Horrelakoak, komunikabide batzuetatik hainbestetan esaten dizkigute, non azkenean, sinetsi ere egiten dugula gure duintasuna galtzeraino.

Eskubide urraketen zerrenda luzea egin dezakegu, aipa ditzadan batzuk:

Hauteskunde garaitan, Joxe Joan González de Txabarrik - Gipuzkoako Foru Aldundirako EAJko hautagaiak - PSOEko hautagaiari buruz ari zenean, euskara ez zekien hautagaia ez zela egokia Gipuzkoako Diputazioa zuzentzeko esan zuen. Bada, PSOEko Miguel Buen jaunak xenofobotzat jo zuen iritzi hori. Hau marka da gero! Ikusten denez, euskaldunok gaztelera hutsean zerbitzatu nahi gaituena ez da xenofobia. Ondorioz, euskaldunok, zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskubiderik ez daukagu Miguel Buen jaunak gaztelera jasotzen duen bezala. Gure aitarekin sendagile batzuegana joatean, itzultzaile lanetan aritu behar izaten dugu. Sobra ere, aitak ez dauka eskubiderik, bere 101 urtetan, sendagile euskaldunen zerbitzuez baliatzeko, Buen jaunak gaztelera bezala. Gure aitak ez dauka eskubide berdinarik, aiton amon espainolek eta frantsesek bezala.

Egin eta Egin irratia itxi zizkiguten. Ez daukagu eskubiderik gure informazio iturriak erabiltzeko. Euskaldunon Egunkaria ere itxi egin digute. Agi denez, euskaldunok ezin dugu informazioa euskaraz jaso espainolek eta frantsesek beren hizkuntzan egiten duten bezala.

Ehundaka preso eta erbesteratu dauzkagu. Batzuk ikasi

egin nahi dute eta ez daukate eskubiderik beren herriko unibertsitatean egiteko, espainolek eta frantsesek bezala.

Ezker abertzaleko eta independentisten norabide politikoa kudeatzen duen alderdi politikoa ilegalizatu egin dute. Dirudienez, ez du eskubiderik gure herriaren etorkizuneari parte hartzeko.

Euskaldunon arteko harremanak sendotzeko, herrien arteko arazoak konpontzeko eta nazio bezala garatzeko sortutako erakundea, Udalbiltza, ilegalizatu egin digute. Donapaleuko, Tuterako, Ezpeletako, Artzeniegako, Gernikako edo Usurbilgoen artean dauzkagun giza arazoei ezin diegu nazio politika komun batez erantzun, espainolek eta frantsesek bezala.

Eta den dena, Espainiako justiziak dionez, ETAk sortua da. Ez al zegoen bada desagertzeaz? Hainbat espainol ministrok, ez al digute bada eten gabe esan, ETA bi komandoren kontua zela eta laster batean polizialki irabaziko zitzaiola? Orain berriz, diotenez, dena ETA da. Dena, ETAk organizatzen du eta gainontzekook bere agindupean gaude. Hala Jaungoikoa!! Egunkariak, irratia, Udalbiltza, partidu politikoak,... ETAk antolatuta eta kudeatzen baditu, ez dira makalak gudari hauek!! Beraz, ez dirudi bi katuren kontua denik.

Ez dago eskubiderik!! Hau dena, ez hanka eta ez buru duen gerra zikina da, bortizkeria hutsa. Horregatik derragun tinko: Euskaldunak gara. Euskadin eta euskaraz bizi nahi dugu. Gure aberria Euskadi da. Frantsesek eta espainolek dituzten eskubide berdinarik nahi ditugu, ez gehiago ez gutxiago. Abertzaleon arteko elkarlanak jarriko du bakoitza dago-kion tokian. Honenbestean, jarrai dezagun eraikiz eta esan ozenki Euskal Herria aurrera!!

Zutabegileak: Luis Aranalde • Olatz Altuna • Aitziber Matxain • Ainhoa Azpiroz • Aitor Landaluze • Mikel Usabiaga

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAKI GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

Hurrengo alea: ekainak 13. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** ekainak 6.


Postaz: Noaua! Kultur Elkarte - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil

e-posta bidez: noaua.k.e@euskalnet.net



ITZ G
HE IK T EN
S. M. K. P. N. K. I. K. I. U. P.
K. N. B. H. K. E. I. N. T. K. U.
T. I. E. 33 217

Euzkadi 40. urtearen



LK T
UT ZE ITZU
F. I. T. K.
Z. K. I. K.
E. T. X. E. K. I. K. T. U. K.
K. N. O. E. L. T. U. K.

h k k l , 4
T H 43 3 57 42

Martxan da KZgunea

Parez pare zabalik daude KZguneko atekak. Aurrerantzean, herritar orok doako prestakuntza-ikastaroak jasotzeko aukera dugu.

Beste herri batzuetan bezalaxe, Usurbilen ere badugu KZgunea izeneko zentroa. Maiatzaren 16an zabaldu ziren egoitza honen atekak eta harrez geroztik lagun asko izan dira informazio eske Kazetagusenera hurbildu direnak.

Eskura ditugun zerbitzuak hauek dira: prestakuntza ikastaroak, nabigatu edota posta elektronikoa erabiltzeko aukera.

Zerbitzu hauek guztiak doanekoak dira.

Maiatzaren 26an hasi zen lehen prestakuntza ikastaroa. Hurrengo ekainaren 9an hasiko da. Ikastaroei 20 eguneko iraupena dute, egunero 2 ordu.



INTERNETEN IBILI EDOTA IKASTAROK JASOTZEKO ZABALDU DA KZGUNEAK.

Beraz, Internet arrotza bazaizu jada ez duzu aitzakirik. Eskura duzun gune honek erraz, doan eta etxetik hurbil ikasteko aukera eskaintzen baitizu.

Ikastaroei buruzko informazio gehiago Txaramuntoko egoitzan bertan eskuratuko duzu edota honako telefono zenbakian: 943 36 14 12 (Montse).

ETXEBIZITZA SOZIALAK

2002ko irailean udal jabego-ko etxebizitza sozialen gaineko eskubideak esleitzeko bete beharreko lege, ekonomi eta administrazio baldintzen orriak zehaztu ziren. Lehen erabilitako oinarrietan aldaketa batzuk egin ondoren, baldintza pleguak 2003ko martxoaren 25ean eginiko udalbatza osoan onartu ziren. Orain, gizarte zerbitzuetako kideek aditzera eman dutenez, 2 etxebizitza eta egonera berezietarako gordetako etxebizitzaren 2 logela esleitzeko prozesua jarri da martxan. Izen-emateko epea ekainaren 2an amaituko da, 13:00ean. Informazio gehiago: Gizarte Zerbitzuetako bulegoetan, 943 377 110 telefonoan.

Hauteskundeen biharamunean

Arrakasta izan zuen hauteskundeen biharamunean banatu genuen argitalpen bereziak. Dena den, datu bat oker eman genuen: EAJ-PNVk ez zituen 731 boto lortu, 711 baizik. Foru Aldundiak emandako datua da. Antza, 3. sekzioko botoak ez ziren behar bezala zenbatu.

Hauteskunde egunaren biharamunean, bestelako ondorioak ateratzeko aukera izan genuen. D'hont legearen arabera, honela banatu dira zinegotzien eserlekuak.

UHLk jasotako babesa kontuan hartuz, orden honen arabera banatuko lirateke udaleko eserlekuak:

UHL: 1, 4, 5, 8, 12 eta 13garren eserlekuak. EAJ/PNVk 3, 7 eta 11garren eserlekuak. EAK, 2, 6 eta 10garrena. PSE-EE/PSOE, 9garrena.

Azken zinegotzia UHLrena litzateke. EA-k 14 boto gehiago lortu izan balitu, UHLren eserleku hori EAK jasoko luke. Aldiz, EAJ-PNVrena izango zen 13garren eserleku hori, 75 boto gehiago jaso izan balitu.


UHL aintzakotzat hartu gabe, honela geratzen da eserleku-banaketa: EA: 1, 3, 6, 8, 10. EAJ-PNV: 2, 4, 7, 9, 13. PSOE: 5, 12. PP: 11.

Azken zinegotzia EAJ-PNVrena da. EAK 81 boto gehiago lortu izan balitu, EAJ-PNVri egokitu zaion eserleku hau



EAREN EGOITZAN PINTADA IRAINTZAILEAK AGERTU ZIREN BIHARAMUNEAN.

EAK jasoko luke. PPK, aldiz, 138 boto gehiagorekin EAJ-PNVren azken zinegotzi hori eskuratuko luke. Eta PSE-EE/PSOErena litzateke, beste 140 boto gehiago jaso izan balitu.



ZUMET MENU K

(Gutx n z 2 l un nez t)

- Etx k h t f - r a s t
- l u r r z
- Its sk nts l h z r ruf z r z
- Z ux n urr z t r k c s sk
- s lts z
- s zun t t ur n t kl
- r z h r s lts t n
- Etx k z k n uruk n st n
- t k f

**ZUMET
J TETXE**



Usurbil Autoak, S. C. L.

Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezearra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

IÑAKI
LABAKA

Txokoalde

Arau subsidiarioak

Joan den ostegunean, maiatzak 22, onartu zituen Udalak behin behingoz Hiri Antolamenduko Arau Subsidiario (AASS) berriak. Bertan zehaztu dute datozen hurrengo 10 urtetan Usurbilen non, zer eta nola eraiki ahal izango den.

Lehen ere tarte honetan behin baino gehiagotan hitz eginda aipatu arauetan Txokoalderi buruz jasotzen denari buruz. Esate baterako sarbide berriarena.

Oraingoan berriz, Txokoalden eraiki ahal izango diren etxebizitza berriei buruz hitz egingo dut. 1991ean onartutako AASSetan Txokoalden ez zen inolako etxebizitza berririk aurreikusi. Auzoko gazteen eskaerei erantzunez ordea, Udalak babes ofizialeko etxebizitzak lehenbailehen eraiki ahal izateko AASSen aldaketa puntuala sustatu zuen. Hala, 2002ko maiatzean Diputazioak aldaketa onartu eta Txokoalden, Errotan, babes ofizialeko lau etxebizitza eraikitzeko aukera hobetsi zuen.

Orain onartu berri diren AASSetan ere, Udalak bere asmoari eutsi dio Errotan babes ofizialeko lau etxebizitza eraikitzeko aukera berretsiz. Beste kontua bat da ordea etxebizitzok noiz eraikiko diren. Udalak behin eta berriz saiatu den arren, jabeek ez dute aurrerapen sendorik egin. Iazko abenduaren 4ean jabeek Errota etxea botatzeko proiektua aurkeztu zuten udaletxean.

Udalak ordea, etxea botatzeko baimena eman aurre-

tik, bertan eraikiko diren etxebizitzen Oinarrizko Proiektua aurkezteko eskatu dio, babestu beharreko elementuen tratamendua proiektuan jasoz. Izan ere, aipatu etxea Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen katalogoan eta Aranzadi Zientzia Elkartek Diputazioiko Kultur Departamenturako egindako ondare inbentarioan jasota baitago bere interes etnografikoagatik. Udalak, Aranzadi Zientzia Elkartek egindako fitxan azaltzen diren elementuak babestu nahi ditu: errota hidraulikoaren instalakuntza, bi erro-tarri, erlaitza, kurrika artikulatua, danbor eta tobera, eta sotoan turbina, eta abar; ahal bada herritarren erakusgarri jarritz. Beraz, Udala jabeek proiektua noiz aurkeztu zain dago. Ea berandu baino lehen aurkezten duten.

Txokoaldeko etxebizitzen kontuokin bukatzeko, AASSetan Berriolako ezaugarrien fitxan zehazten dena aipatu nahi nuke. Berriolak Atallu industrialdean hartu duen partzela kontutan izanik, Udalak Txokoaldeko lantegia uztearen aukera aurreikusi du AASSetan. Hala, Berriolak lantegia utziko balu, eremua etxebizitzekin eta plaza publiko batekin errehabilitatzeko aukera uzten da. Ondokoa ere xedatzen da: errehabilitatzeko kasuan, etxebizitza kopurua 18koa izango da, gehienez ere 600 m²-ko azalera erabiliz.

Sagardo egun eguzkitsua

ANA
URDANGARIN

Kaleberri


Benetan egun zoragarria izan da aurtengo Sagardo Eguna, ezta? Inoiz baino lehenago bukatu omen da aurten sagardoa, eguraldiarengatik ote? Seguruenik bai, gainera ez da harriztekoa zegoen jendetza ikusita.

Ze ongi pasa genuen egun osoan, taberna guztiak bete-beteak! Jendea ezin kabiturik. Aurtengo botatzaile irabazlea gure Mugu izan da, benetan merezi dek txikito!

Egia da ere, beste urteetan jendea mozkor handiagokin ikusten zela; lurrean botata, ezin altxatu. Baina aurten, nire ustez behintzat, ez da hainbestearinokoa izan.

Beno, hurrengo urterarte itxaron egin beharoko dugu, berriz ere Sagardo Eguna ospatzeko, aurtengoa bukatu baitzaigu.

Astelehen latza pasatzen duten guztiei eskaintzen dizkiet lerro hauek. Animo eta laster pasako delakoan, hurrengora arte, aio!



Mendi irteera polita

Oraingo honetan, auzoan egin den lehen mendi irteeraren berri ematera natorki-zuet. Andatza izan zen aukeratu genuen tontorra, gainera bere egunean, aproposa, ezta? Kuadrila majua elkartu ginen, plazatik 10:00etan abituta. Egurdian gurutzean eta aurreaxeago bordan bildu ginen: baten babak zirela, beste batzuen presak gailurrera iristeko lehenbailehen... baina, beno, azkenean denak batera. Salda beroak indarberritu gintuen, ondoren bertako jendeak egin zuen moduan guk ere gure itzal zatian tokia hartu eta bertan eseri ginen. Haurrak jolasean zeuden bitartean, gurasoek animatu egiten zituzten; eta gero, lehiatzeko txanda helduei iritsi zitzairenean gatzetxoek pasa zuten ondoen zaharrenei barre eginez.

Borobilean eserita sabela bete, eta gero Kalexarko umeek txandaka asmakizunak eta txistekak kontatu zituzten gure artean. Beno aldapa bera jeisteko ordua ailegatu zan, gurutzera iritsi aurretik haur bat falta zela konturatu ginen, berriz



gora ta han zegoen jolasten, berak guri bota zizkigun purrustak, arrazoi guztiz, ja,ja,ja...

Eguna Kalexarko sozidadean bukatu genuen, afari-merienda batekin, batzuk nonbait Andatza kafe gabe geratu ginen eta horren beharrekin joan ginen Peña Pagolara.

Beno eta abujetak iadanik pasata egongo direnez, bigarrena prestatzen hasi beharko dugu, eh?

Kalezar



AINARA
URIBE

Festa eta ekintza ugari

Urtero bezala, aurten ere ospatu dugu Sagardoaren Eguna. Eguraldia ederra izanenez, jende multzo handia hurbildu zen gure artera. Herriko plaza aldean, bertan hainbat sagardo mota dastatu ahal izan genituen. Berehalatik ekin genion kristaleko basoen erosketari eta segituan dastaketa lanetan hasi ginen. Aldi berean, taloa eta txorizoa zueden aukeran, baita opil gozo eta bereziak, etxera eramanez zituenarentzat.

Baziren beste hainbat mahai ere, bertako produktuekin. Etorkinak ere gero eta gehiago datozte, bizimodua aurrera atera nahirik gauza ezberdinak eskainiaz.

Eguerdia iritsi zenean, gazte koadrila bikainak bazkaria prest zuen Atxegaldeko Mahaspildegian elkartean, eta bertan bildurik ondo bazkaltzeko modua izan zuten. Gero, hor zebiltzan umore onenarekin, berriz ere plazara hurbiltzeko asmatan. Arratsaldean ere, nahikoa dantza eta salto egin eta ondo pasa zutela dirudi.

Ordutik hona astebete pasa da eta hemen gaude hauteskundeak gainean ditugla. Izango dugu

noski guztiok zer pentsatu ea dena izaten den herriarentzat ongarri, orokorrean, lana eta bakea izan dadila guztiontzat. Gazteak izango al dute girorik onenean eta bakean bizitzeko eskubidearen aukera.



Atxegalde



MARIA
JESUS
ETXEBERRIA

Bestalde, eta egun berean, jaunartze eguna ere izan zen eta, nahiz eta eguraldi aldetik erdizka ibili, elizkizun berezia eskaini zaie 25 hurrei. Lehen aldiz, beren jaunartzean, katekisketa aldetik lan bikaina egin dute eta eskertzekoa da beren ahalegina, auzotik ere baziren haur batzuk eta egun berezia izan zen beraiantzat eta senideentzat.



AGUSTÍN
ESNAOLA

Santuenea

Auzoko eskariak

Maiatzaren 25ean hauteskundeak izan ditugu eta korporazio berria eratu da. Aurreko korporaziokoak ez zuten jaramon handirik egiten Noauan idatzitakoari, horregatik eskaera batzuekin natorkizue, auzotarren beharrak jakin ditzazuen behintzat.

Orain dela hilabete bat, gutxi gora bera, 26aren blokearen aurrean, ur eten bat gertatu zen eta brigadako langileak etorri ziren konpontzera. Bi egunetan urik gabe utzi ondoren konpondu zuten, baina hilabetea pasa eta gero, kalearen bukaeran dauden bi farolak ez dute argirik egiten, altxa zuten espaloiarene zatia ez dute konpondu oraindik, eta segurtasuneko heziak gainean daude jarrita. Horregatik, obra amaitzea eskatzen dugu eta bide batez agertzen den ura nondik datorren azertu dezaten.

Gasaren sarea sartu ziguten orain dela 5 hilabete. Gasaren tuboarekin joan behar zuen teknologi berrientzako azpiegitura ez zuten jarri. Horregatik, hain garrantzizkoak diren teknologi berrien kablea

sartzea eskatzen dugu.

Auzoko hainbat etxebizitzetan itxura hobetzea komeni da. Pintaketa batekin nahikoa izango litzateke, baina konponketa bat egitea hobea izango litzateke. Horregatik udalak etxebizitzetan fatxadak konpontzeko diru laguntzak eskaintzea eskatzen dugu.

Bestalde auzoko urbanizaketa orain dela urte mordo bat egin zen. Dagoeneko ondatuta dagoela uste dut. Horregatik, ahal denean auzoaren urbanizaketa berria egitea eskatzen dizuegu.

Orain dela urte bete, Noaua aldizkarian uholdeei buruz idatzi nuen. Udal berri honi, arazo larri honetaz, aurrekoak bezala ez jokatzeko eskatzen diot eta Atallu industrialdearen eragina, ondo azertu ondoren, erabakiak hartu ditzala eta egin beharreko hobekuntzak egitea eskatzen dugu.

Badakigu eskaera asko direla. Denbora dago denak egiteko eta patxada ere ba dugu. Horregatik, zuek jakingo duzue neurria hartzen eta obrak noiz egin behar diren.

Hartzen moduan



ALAZNE
BEGIRISTAIN

Urdaiaga

Gizakiok ere animaliak omen gara eta Ggori askotan ikus dezakegu. Hartzek negua lo pasatzen dute (beste animalia batzuk bezala) eta eguraldi onak hasten direnean kobazuloetatik irteten dira.

Guk ere berdin-berdin egiten dugula dirudi. Eguraldi txarrak egin dituenen, neguan, gure auzoa nahiko triste egon da, bizi gehiegirik gabe. Baina, eguraldi onarekin batera, bizia hartu du gure inguruak: jende ugari ikusten da paseatzen, parkean,... eguzkiaren goxotasuna aprobetxatu nahian.

Lurra bera ere berpizten hasi zaigu. Belazeak loretuta daude, eta baratza inguruetan ere hasi da mugimendua: batzuk artoa, babarruna edo bainak ereiten, besteak piperrak, tomateak,... landatzen. Eta, gu bezala etxean baratza izateko aukera dugunok, etxeko letxugak jaten. Ederra da gero eguzkiaren goxotasuna!

Gaiez aldatuz, aurreko batean nire kronikan



parkeko komunak puskatuta agertu zirela izan nuen hizpide. Esan didatenez, kamioi batek maniobra egiterakoan emandako golpearen ondorioz izan zen. Gaizki pentsatzen duenak asmatu egiten duela esaten da, ba, oraingo honetan, ez da honela izan!

Atzera begira

Hara non azaldu zaigun aspaldiko argazki irudirik, 1966ko maiatzaren 14an eginiko erretratua. Kutzako artxiboan omen zegoen baina guk ez genuen honen berri. Duela gutxi, ordea, sorpresa ederra hartu genuen. Iñaki Almandoz esker guregana iritsi zaigu aspaldiko irudi hau.

Txapelketa baten sari-banaketa jasotzen da aldameneko irudian. Garai hartan, euskarazko idazlan txapelketak egin ohi ziren. 1966ko edizioan, Maria Isabel Sagarnak eta nik neuk jaso genuen nesken mailako lehen saria. Pena da baina ez dut orduko testua gordeta. Gustura irakurriko nuke orduan idatzitakoa. 15 urte nituen orduan nazionaletan ikasten nuen, Señorita Maritxurekin. Maria Isabel Sagarnak, berriz, monjekin, Kalezarren.

Mutilen txapelketan, aldiz, Jabier Arrutik irabazi zuen idazlan txapelketako lehen saria.

Honek, aldiz, La Salle ikasketxean ikasten zuen.

G o g o a n daukat argazkia Don Julian Txikik atara zuela. Ezkerretik hasita, ni neuk eta aldameneko Jabier anaia. Eskubitara dagoen neskatxa Maribel Irureta duzue. Eskutan ditugun sariak oraindik gordeta dauzkagu.

Azkar asko pasatzen direla urteak!



Aginaga



**MARIA
ANGELES
ARRUTI**

Hauteskundeak

Pasa dira hauteskundeak eta beste behin ere, nahiz eta batzuetan gauza hoietatik aldendu nahi, ezinezkoa zaigu egun hauetan politikoen kontuetatik ihes egitea: mitinak, propaganda nonahi, hitz goxoak, promesak... Badirudi lau urtetan egin ez daitezkeen gauzak, edo okurrizten ez zaizkien, hamabost egunetan egiteko prest izaten direla. Baina, tira, horrela dago eratu politikoa eta hori omen da demokraziaren funtsa. Hala ere, aurtengo hauteskundetan izan da nobedade bat: batzuek aurkezteko aukerarik ez izatea, hori ere demokratikoa omen da, batzuen ustetan noski...

Gure herrian, Zubietan alegia, hauteskundeak ere izan ditugu. Ez dira izan beste herrietan izaten diren ohiko hauteskundeak, izan ere, Zubietan Udal Batzarra dago eratu, figura bitxia, partidu politikoetatik at geratzen dena, eta neurri batean behintzat, gure herriaren kudeaketa aurrera eramateko balio duena.

Sei pertsonaz osatutako organoa izaten da Zubietako Udal Batzarra, eta zubietar orok du eskubidea junta horretara aurkezteko, bere izenarekin soilik, hau da, inongo siglarik eta partidu poli-



Zubietan



**MIKEL
BENGOETXEA**

tiko baten babesarik gabe. Hiru aukerak dira Usubilen erolduta dauden zubietarretatik eta beste hiruak Donostian daudenetatik.

Hala ere, aurtengo sei pertsonak aurkeztu dute euren burua eta beraz, denak sartu dira batzarran, hauteskundeak Zubietako alkate nor izango den erabakitzeke soilik balio izan dute.

Badute nahiko lan datorren lau urtetan, batzarreko kideek, izan ere, Zubietan aldaketa asko bat datoz, eta erronka horri heldu behar zaio, beti ere gure nortasuna galdu gabe, eta horretan, izango dugu nahi borroka eta buruhauste.

Hauteskundeetako emaitzak, debekua eta legearen artean

Debekuaren itzala ez da amaitu. Testuinguru honetan, UHLko ordezkariak izango da kaltetuenak. Baina gainontzeko alderdientzat ez da egoerarik erosoena, herritar askoren borondatea ordezkartzarik gabe geratu baita. Egoera horrek, guztiz baldintzatuko du legealdi berriaren nondik norakoa.

UHL, LANEAN

JARRAITZEKO PREST

Ezker abertzalearen erronka ez zen erraza. Legea kontra, hauteskunde hauetan oztopo asko gainditu behar izan ditu. Baina hala ere, bozka gehien jaso duen proposamena izan da. Ezker abertzalearen kopuru naturala udal hauteskundeetan 1.300-1.400 botuen artean dago. Eta UHL elkarguneak ia 1.200 boto jaso ditu. Arantxa Manterola, UHLko hautagaia, gustura dago emaitzekin: “zer nolako baldintzetan aritu garen kontuan hartuz, pozik gaude emaitzarekin”.

1.200 usurbildarren borondatea aintzakotzat hartzeko eskaera egiten die bereziki EA eta EAJ-PNVri, “guri dagozkigun eserlekuak bete behar dituzte”.

PP alderdiak, estrainekoz, zinegotzi bat eskuratu du. Horri buruz ere honako hau azaldu nahi du Arantxak: “merkealdien hauteskunde hauetan, gure zerrenda legez kanpo utzi ondoren eserleku bat eskuratzea oso merke zegoen. PPK zinegotzi-postu bat lapurtu digu baina, zentzu horretan, argi jokatu du hasieratik. Besteek, aldiz, ados ez egon arren, gure eserlekuak hartuko dituzte eta kasu horretan jukutria handiagoa da”.

Herriaren gehiengoak bere hitza eman duela aipatu ondoren, herriak UHLri zilegitasuna eman diola uste du. Baina etorkizuna margotzea ez da

lan erraza. Hala ere, “Euskal Herriaren eraikuntzan, tartean, herrigintzan lanean aritzeko asmoa dugu”, adierazi digu Arantxa Manterolak.

EA, GOBERNU EGONKOR BATEN ALDE

Luis Mari Ormaetxea, EAko hautagai nagusia, lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkie herritarrei, “partehartze handiak prozesuari balio demokratikoa eman diolako”.

Udal hauteskunde hauetan abertzaletasun demokratikoak garaipen garbialortu duela adierazi digu: “eta gure alderdiari dagokionez, inoizko emaitzari onenak izan dira”, aitortu digu Luis Mari Ormaetxeak.

Aralar laderdiak Batzar Orokorretan eskuratu diuen 300 botoak aipagarri iruditu zaizkio EAko hautagaiari eta etorkizunean kontuan hartu beharko dden alderdia dela uste du.

Aurrera begira, udal-goberu egonkorra lortzeko ahalegina eingo dute. “Hiru aste hauetan talde sendo bat osatu beharko dugu. Ezin dugu ahaztu UHLk babes zabala izan duela”. Eta herrigintzan era kontruktiboan lan egiteko asmoa badute, kontuan hartuko dituztela gaineratu nahi izan du Luis Marik, eta “Aralarrekin ere hitz egingo dugu” azaldu digu. Ikusi behar harreman hori gerora nola artikulatu daitekeen.

Udal gobernua antolatzerakoan, egonkortasuna da Luis Marik behin eta berriz aipatzen duen hitza. Logikak dio EA eta EAJ-PNVren arteko koalizioa dela aukera garbiena. Baina datozen egunetako hartu-emanek definituko dute udal-gobernu berria.

EAJ-PNVren hitzak jaso nahi izan ditugu baina ezinezkoa izan zaigu Pedro Ibarraren hitz egitea. Datozen asteotan izango ditugu alderdi jeltzaileen hitzak.



OTPOPAK OZTOPO, ARANTXA MANTEROLA IZAN ZEN BOZKATUENA.

HITZAK ETA GILTZAK

Amaya Goyaran pozik zegoen emaitzekin. Lehendik zuen zinegotzia mantetzeaz gain, bigarren eserleku bat ere eskuratu baitu PSE-EE/PSOE alderdiak. Mikel Agirrezabal izango da datozen lau urteotan Amayarekin batera eseriko den zinegotzi sozialista. Usurbilgo zein Euskal Herriko emaitzekin gustura zegoela esan zigan Amayak: “kontuan hartu beharko gaituzte. Gainera, alkatetzarako giltza izan dezakegu”. EAK eta EAJ-PNVk ez badute udal gobernurako koalizioa osatzen, arrazoirik ez zaio falta Amaya Goyarani.

Beraz, une interesgarri baten aurrean gaude. Ikusi behar babes gehien izan duen koalizioak, UHLk, zer nolako eragina izango duen udalgintza mailan, non geratzen diren ehundaka herritarren bozkek eta hitzak. Ikustekoa izango da, halaber, EA eta EAJ-PNV alderdiak euren harremanak bideratzeko gai izango diren ala ez. Eta harrigarria gerta badaiteke ere, PSE-EE/PSOE eta PP alderdiek izan dezakete alkatetzarako giltza.

Imanol Ubeda

UDALBATZA BERRIAREN OSAKETA



ALKATETZARAKO
HAUTAGAI NAGU-

**Luis Mari
Ormaetxea, EA**



**Pedro Ibarra,
EAJ-PNVko
zinegotzia**



**Imanol
Zubiondo,
EAko zinegotzia**



**Andoni Atxega,
EAJ-PNVko
zinegotzia**



**Amaya Goyaran,
PSE-EEko
zinegotzia**



**Salome
Portu,
EAko zinegotzia**



**Julian Beraetxe,
EAJ-PNVko
zinegotzia**



**Josune
Urkia,
EAko zinegotzia**




**M.K. Astigarraga,
EAJ-PNVko
zinegotzia**



**Ibon
Beristain,
EAko zinegotzia**



**Manuel
Michelena,
PPko zinegotzia**



**Mikel Agirrezabal,
PSE-EEko
zinegotzia**



**J. M. Zubiria,
EAJ-PNVko
zinegotzia**

DEBEKATUA IZAN DEN ORDEZKARITZA



BOZKA GEHIEN BILDU
DITUEN ALKATEGAIA

Arantxa Manterola, UHL



**Koldo Huegun,
UHLko
ordezkaria**



**Iñaki Larrañaga,
UHLko
ordezkaria**



**Oihana Lizaso,
UHLko
ordezkaria**



**Garbiñe Errekondo,
UHLko
ordezkaria**



**Iñaki Aranburu,
UHLko
ordezkaria**

Zer irizten? !

Garaipenaren botoak

Debekuaren kolorez jantzitako hauteskunde kanpainak emaitza aipagarriak eman ditu Usurbilen. Lehenengo, Euskal Herri osora hedatu daitekeena, ezker abertzalearen esparru sozialak hor jarraitzen duela, debeku, ilegalizazio eta oztopo guztiei aurre eginez.

Herriari eta Udalari lotutako emaitzek, ordea, badute beste konnotazio esanguratsu bat, eta Usurbilen 1.179 boto UHLri emateak, indarraren poderioz legez kanpo kokatuta geratu den aukera-

ri emateak alegia, merezi du azterketa hau beste ikuspuntu batetik egitea ere.

1.179 boto horiek protesta botoak dira bai, baina era berean konfiantza, fidagarritasuna eta errekonozimendu botoak. Hainbat urtetan ezker abertzalearen esku egon den herri aginteari hautesleek ematen dioten babes eta onespenaren isla. Baliogabeak izango diren botoek osatu dute herriko zerrendarik bozkatuena. Datu horrek zer pentsa eman diezaike Usurbilgo Udala osatzeko aukera guztiak

eduki dituzten alderdiei. Garaipenaren botoak baitira, urtez urte, gestio-lana eta ildo politikoaren uztarketak fidagarritasuna lortu duen aukerarenak. Urraketa demokratiko baten barruan emandako emaitza horiekin aurrerantzean EAk eta EAJk zer egingo duten jakitean dago koska, debekuaren kolorea mantentzeko guztia iluntzeko arriskua baitakar.

Mertxe Aizpurua

Joxe Antonio Altuna: "Aportazioak egiten saiatuko gara"

Garai berri bat zabaldu da Usurbilen. 16 urteotan agintean izan den alkateak bere kargua utzi baitu. Iraganaz, orainaz eta geroaz mintzo zaigu honako elkarrizketan. Nekea aurpegian sumatzen zaion arren, pozik dago denbora honetan egindako lanarekin.

16 urte hauetako balantze labur bat egingo al diguzu?

Seguru gauza asko aipatu gabe utziko ditudala, baina hauek dira burura etorri zaizkidanak. **Ekonomi** arloari dagokionez, gu sartu ginenean Zumarte industrialdea hasi zen martxan. Aurreko legealdiak bideratutakoa izan bazen ere, guk eman genion amaiera industrialde horri. Atxega Jauregia Udalaren eskutara pasa zen. Osinalderekin, berdin. Gu sartu eta gero egokitu zen.

Anpliazio asko egin dira: Uzinen, Asteasuainen, Mitxelinen, Luzuriaga-Fagorren, Ingemarren... Atalluko industrialdea araudietan jarri dugu eta zonaldea bideratzen hasi gara. Aginagan ere, anguleroekin anpliazio ugari egin da.

Hirigintzari dagokionez, lehen urteetan eman ziren urrats garrantzitsuenak. Aurretik bi legealdi pasa ziren baina arau subsidiarioak bideratzea ezinezkoa izan zen. Eta arauak ezinbestekoak dira herri baten funtzionamendurako. Bazen aurre-rapen-eskaintza bat hitzarturik baina guretzat astakeria zen. Etxebizitzak azaltzen ziren kaxkoan eta kaxkoaren bueltan, baina %70a banakako eta binakako etxeak ziren, adosatua. Eta %30a etxe-blokeak. Guk alderantzizko proposamena genuen: %70a, etxe-blokeak; eta %30a, adosatua. Orduko arkitektoak ez zuen onartu eta beste arkitekto bat kontratatu eta aurrera egin genuen. 1988an hasi ginen arau subsidiarioekin eta 1990an amaitu genituen. Bitarte horretan, beharrrak eta eskaerak handiak ziren baina etxe faltan jende asko kanpora atera zen, batzuk Oriora baina, gehien bat, Lasarte-Oriara. Galtzaragainakoak izan ziren babes ofizialeko lehenak. Nobedadea izan zen eta garai berean hasi ginen **urbanizazioak** berritzen. Kalezar lokatzez beteta

zegoen, oso gaizki. Arau subsidiarioekin batera, paraleloan, Plan Berezi bat bideratu genuen Kalezar zein kaxkoko erdigune historikoak babestu asmoz. Kalezar berehala itxuraberritu zen. Horren ondorenan, Santueneako alde zaharrean sartu ginen. Urbanizazioa egin gabe zegoen eta tirabirak izan baziren ere, hori martxan jartzea lortu genuen. Santueneako alde zahar hori dena berritu zen. Eta zubia ere egokitu genuen. Aginagako espaloiak ere berritu genituen, Foru Aldundiatik dirulaguntzak jasoz. Hori ere garrantzitsua izan zen. Hurrengo urbanizazioak Atxegaldekoak eta Etxealdiakoak izan ziren. Txokoalde, uholdeen ondoren oso ondo utzi genuen. Aldaketa garrantzitsuak eman ziren.

Zerbitzuei dagokionez, langileen lana antolatu genuen lehenbizi. Lanpostu gehiago sortu ziren. Lehen brigada talde batek dena egiten zuen. Orduan, lanak banatu eta talde ezberdinak osatu genituen: elektrizitatea, jardineritza, egunero garbiketa, eraikuntzak... Urteak pasa dira eta zerbitzuak hobetuz joan dira. Jende ona dugu zerbitzuetan, langile onak eta ondo antolatuak, baina gauzak beti hobetu daitezke.

Ongizatea. Zerbitzua ondo ematen da baina baditu beste arazo batzuk. Hobeto funtzionatu daitezke.

Nekazaritzan eta Ingurugiroari dagokionez, teknikari berriari esker, zerbitzu hobe ematen ari gara gaur egun.

Baita **Kultura, Euskara eta Gazterian** ere. Beti egon da mugimendu handia alor hauetan. Ahalik eta erraztasun gehien ematen saiatu gara: oztupoak sahiestuz, diru laguntzak banatuz. Azken txanpan, azpiegitura mailan oinarritu gara: Kultur Etxe berrian, honen osagarri izango den Potxoenean... Horiiek, behintzat, bideratuta utzi ditugu. Euskarari dagokionez, lan asko egin da baina oraindik asko dago egiteko. Udaletxean gaur egun dagoen euskara maila pozteko modukoa da.

Eta zertan huts egin du zure taldeak azken 16 urtetotan?

Hanka sartu dugu behin baino gehiagotan; horri ezin zaio ezetz esan. Dena



LEGEALDIKO AZKEN PLENOA MAIATZAREN 22AN OSPATU ZEN.

hobeto egin daiteke, baina garbi dago guk gure aldetik ahalegina egin dugula eta hobetzen saiatu garela.

Zeintzuk dira epe laburrean Udalak garatu beharko lituzkeen proiektuak?

Talde berriak badaki zeintzuk diren lehentasunak: Kultur Etxea eta Potxoenea bukatu behar dira. Eguneko Zentroa bideratuta dago, baita ekipametuak ere. Hurrengo pausoa hori martxan jartzea da. Urgentea da Kale Nagusia berritzea eta honekin batera, San Inazio berritzea, errotonda berri bat egitea... Diru laguntza bat ere lortu dugu eta hori aprobetxatu behar dugu. Etxebizitza arloak ere, lehentasuna du. Arau berrietan jasota daude babes ofizialeko etxeak Aginagan, Santuenean, Zubietan, Olarriondon... Lehenbailehen esleitu beharko genituzke.

Oposizioaren eskutan geratuko da alkatetza. Horrek kezkatu egiten al zaitu?

Bai, asko kezkatzen nau baina ez naiz orain zergatiak ematen hasiko. Hala ere, gu saiatuko gara gertatzen direnak gertatuta ere, gure kritikak eta aportazioak egiten. Hor izango gara. Hori bai, EAJ-PNVk alkatetza hartzen badu, euskara ikastaro trinko batzuk har ditzala.

Alkate berriari zein aholku emango zenioke?

Herriko arazoei aurre egiteko behar den denbora guztia hartzea eta herritarrei entzutea. Oso inportantea da herritarrei irekita egotea, bai hemen eta baita kalean ere. Gogorra izan daiteke baina horretarako gaude.

“Franco hil zen baina ordezkkoak utzi zituen”

Urte asko egin ditu politika-gintzan. Bere ahalegin handiena udalgintza mailan gauzatu bada ere, zuzenean pairatu ditu gizartean zein politika mailan eman diren gorabeherak.

HB, EH eta Batasuna taldeko kide izan zara. SA taldearekin egin dituzu azken urteak. Berriki, UHL eta AuBko zerrendetan ikusi zaitugu. Guztiak legez kanpo daude orain. Aurrera begira, nola ikusten dituzu gauzak?

Francoren garaia datorkit burura. 70. hamarkadan zinegotzia izan nintzen eta orduan ere arazoak handiak ziren, baina lanerako sistemak aurkitu ziren. Herri batzuetan beste batzuetan baino gehiago lan egin zen. Ilegalizazioak lehengo giroa dakar: arriskua, kezka, pauso bakoitza pentsatu beharra... guk garai horiek ezagutu ditugu. Franco hil zen baina ordezkkoak utzi ditu. Hala ere, aurrera egiten saiatu behar dugu.

Intsumisioa babesteagatik atxilotua izan zinen. Nola ikusten duzu orain iraganeko pasarte hura.

Plenoan hitzarturikoa bete baino ez nuen egin. Baina faktura pasa zidaten. Ni ez nago damaturik, kontrakoa, harro nago egindakoaz eta gainera denborak arrazoia eman digu.


Nahiz eta Udalbiltza legez kanpo egon, baikor ikusten al duzu udal hau-tetsien mugimendua?

Euskal Herrian beti daude ideiak, eta beharko, aurrean ditugun etsai eta agintariak ikusita. Euskal Herriari buruz eta bere nortasun propioari buruz zenbat urte, zenbat froga egin diren...

Aurrerapen batzuk eman dira baina herri bezala blokeo baten aurrean gaude. Beraiek badakite non dauden gure mugak. Arazoa autodeterminazioaz hitz egiterakoan sortzen da. Hor datoz gure burujabetasuna lortzeko arazoak. Dena den, gure gauzak geureganatzen hasi behar dugu pixkanaka. Udalbiltzak indarra hartuko balu ilusio handia sortuko litzateke, baina kontziente izan behar dugu mugak aurrean ditugula. Euskal Herria kontzientziatzen ari da, batzuk besteak baino gehiago sufrituz, baina gure burujabetzarako pauso egokiak zeintzuk diren pixkanaka azalduko dira.

Testuinguru honetan, zertan laguntzen du borroka armatuaren presentziak?

Egoerarik onena indarkeria eza da. Borroka armatuaren gaia manipulatu egiten da, arazo bezala azalduz. Nire ustez, hori ez da arazo nagusia. Zenbaitzuk diote indarkeria ezabatuz dena konponduko litzatekeela, baina hori gezurra da.



Ez dut horretan sinesten. Nire zalantzak, dudak izan ditzaket gai honen inguruan. Baina borroka armatua ezabatuta, gure helburuak lortuko al genituzke? Autodeterminazioa guri dagokigun eskubidea da. Niretzat hor dago gakoa. Simplea dirudi, baina zergatik ez da arlo horretan gehiago sakontzen? 16 urteotan ez dugu inoiz borroka armatua txalotu, ezta gaitzetsi ere. Euskal Herriaren hitza eta erabakia errespetatzen den egunean, berez desagertuko litzateke borroka armatua. Hori iruditzen zait niri.

Eta Ibarretxe Planari buruz zer iritzi duzu.

Beharbada asmo onak izango ditu plan horrek, baina ez dut uste gatazka honen konponbidea ko-soberanietatik etorriko denik.

4 urterako hitza eman eta 16 egin

Zer jaso duzu alkatetza hartu zenuenetik?

Alkatetzarako proposatu zidatenean sorpresa handia hartu nuen. Alkatetza hartu eta berehala, askatasuna murriztu egiten zaizu; eta konpromisoak, berriz, handitu. Baina asko ikasten da batzuekin zein besteekin harremanetan... Nire inplikazioa erabatekoa izan da eta herritarrekin konexio handia izan dut. Pertsona bezala garatu egin naiz. Disgustoak ere izan ditut baina bestela-

koak gehiago izan dira. Egundo ez naiz alkatetzan sartu izanaz damutu.

Gauza asko utzi behar izan ditut. Baina etxean ondo hartu dute eta hori oso garantzitsua da. Emazteak eta alabek asko lagundu didate, batzutan purrusta batzuk ere jaso ditut; baina, orohar, babestua sentitu naiz.

2003 arteko kargua izango zela uste al zenuen?

Ezta pentsatu ere. Lau urterako kon-

promisioa hartu nuen. Baina hamasei egin ditut azkenean. Gauzak hobetzen doazela ikusten duzu eta egindakoak lanean jarraitzeko animoak eman izan dizkit.

Zeintzuk izan dira denbora honetako une gogorrenak?

Uste dut orain bizi dugula une zailena, 16 urte hauetako gogorrena. Orain arte, egin eta egin aritu gara baina orain gure lana eten nahi dute.

Eguraldia bero, eta giroa beroago

Pasa da XXII. Sagardo Eguna, eta aurreikuspen onenak bete ziren. *Lorentxok* bete-betean jo zuen dema-plazan, eta, ondorioz, beroari aurre egitea ez zen lan erraza. Hala eta guztiz ere, primerako eguna igaro genuen.

Aitziber Elortza, Joseba Pellejero eta Marian Berdegeren irrintziekin eman zitzaion hasiera egunari. Irekiera ofiziala Patxi Azkonobietak egin zuen eta hortik aurrera musika, sagardoa eta giro ona nonahi.

Antolatzaileak gustora daude. Itzalai Pikabeak eta Ainhoa Labakak adierazi digutenez, "orokorrean eguna oso ondo atera zen, eguraldia ona, baina bero handiegia egin zuen. Ondorioz, sagardoaren tenperatura kontrolatzea gehiago kosta zaigu". Egun osoan lortu zen giroa azpimarratu nahi dute, goizean, bazkarian nahiz arratsaldeko errome-

rian. Izan ere, aspaldiko partez, pilotalekuan argazki polita atera baitzen. Jende ugari aritu zen dantzan eta kantuan Tapia eta Leturiaren erromerian.

Bestalde, herritarren partehartzea ere txalotzekoa izan da aurtengo edizioan. Inoiz baino herritar gehiago animatu baita lanerako. Antolatzaileen hitzetan, "sagardo postu guztiak bete ziren, baina urtero bezala, basotako postu bat betetzeko larri ibili gara. Ea ba datorren urtean basoak saltzeko jendea animatzen den".

Aurreko edizioetan bezalaxe, muztioaren prozesuak bisitari guztien arreta bereganatu zuen. Botatzaileen lehiaketan ere giroa pil-pilean izan zen. Iaz ez bezala, aurtengo lehiaketa Iker Muguruzak irabazi zuen, bigarren postua Urko Manterolak eskuratu zuen eta iazko irabazle Kerman Errekondo, hirugarren tokiarekin konformatu behar izan zuen.

Etxerat elkarteak euskal presoak euskalherriratzeko aldarrikapena ere kalera atera zuen. 13:00ean eskualdeko elkarretaratzea egin zuten frontoi atzeko parkean eta deiak erantzun zabala izan zuen.

Euskaldunon Egunkariak ere ondo merezitako tokia izan zuen. Azken urteotan Egunkariak Sagardo Egunari buruz kaleratu dituen gehigarri eta artikulua ikusgai baitzeuden erakusketan. Frontoi atzeko portada handia ere txiki gelditu zen, aurreikusitakoa baino jende gehiagok jarri baitzuen bere argazkia. Guztira, 528 lagun animatu eta 2200 euro bildu ziren.

Amaitzeko, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkie eguna aurrera ateratzen lagundu dutun guztiei. "Hurrengo urteari begira bai proposamen eta bai antolakuntzan parte hartu nahi duten guztientzako irekiak gaude".



PATXI AZKONOBIEK EGIN ZUEN SAGARDO EGUNeko IREKIERA OFIZIALA.



HERRIKO BOTATZAILEAK FIN ARITU ZIREN LANEAN.



528 LAGUNEK JARRI ZUTEN BERE ARGAZKIA, ETA 2200 EURO BILDU ZIREN



ETXERATEN ELKARRETARATZEAN EUSKAL PRESOK IZAN ZITUZTEN GOGOAN.



TAPIA ETA LETURIAK ARRATSALDEAN LAGUN UGARI JARRI ZITUEN DANTZAN.

5.000.000 euro behar dira!

Maiatzaren hasieran Egunkariako langileek iragarri bezala, ekainan euskarazko egunkari berria kioskoetan egongo da. Horretarako, *Berria berri* lelopean kanpaina bideratu dute, diru bilketa handia egiteko, akzioen bidez. Proiektu berrirako Usurbilen 18.000 euro lortu behar dira, eta herri batzordeko kideak jada horretan dabiltza.

Egunkaria itxi eta berehala bertako lan taldeak konpromisoa hartu zuen euskarazko egunkari berri bat lehenbailehen kioskoetan jartzeko. Euskal Herriarekin hartu zuten konpromisoa uda baino lehen bete nahi dute. Baina, egunkari berria ekainerako kioskoan edukitzeko guztion laguntza beharrezkoa da.

Egunkaria gizartetik sortu zen, eta herri ekimenetik bizi izan da. Instituzioen diru laguntza ere izan du azken urteotan. Eta orain ere, laguntza horiek guztiak beharrezkoak izango dira proiektu komunikatibo berria gauzatu ahal izateko. Egunkariako langileek Euskarazko Komunikazio Taldea S.A. sortu dute 60.350 euroko kapitalarekin, euskarazko egunkari berria argitaratzeko helburuarekin. Langileen xedea ez da enpresaren jabetza izatea; langileek erositako akzioak gerora sortuko den fundazio batera pasatuko dira, euskal kultura eta komunikabideak garatzea helburu izango duen fundazio batera.

50 ETA 300 EUROKO AKZIOAK

Baina, euskarazko egunkari berria kalean jartzeko diru baliabide handiago-

ak behar dira. Proiektu berriari ekiteko 5.000.000 euro arterainoko kapital gehitzea onartu da. 50 eta 300 euroko akzioen bidez guztiok izango dugu Euskarazko Komunikazio Talde S.A. enpresa berrian parte izateko aukera; euskaltzalea eta nazionala izango den egunkariaren parte. Akziodunen osaketa anitzak bermatuko ditu proiektuaren oinarriak, eta euskaldun guztiengana heltzea lortzen bada erdietsiko da helburu hori.

NOLA ESKURATU AKZIOAK?

Usurbilen akzioak honako lekuetan eskuratu ahal izango dituzue: Lizardi liburudendan, Mahukan eta Udaletxeko erregistroan. Honako telefonoa ere zuen eskuera dago, zalantzak argitzeko: 656 755 021.

“Oinarri sendotik abiatu gara”

Egunkariaren itxieratik orain arteko balantze labur bat egingo al diguzu?

Momentu ezberdinak izan dira. Hasiera izan zen gogorrena; Egunkariaren itxiera, atxiloketak, tortura testigantza gogorrak... 13 urteetako esfortzua prezintatuta ikusteak ere ez zen oso ikuspegi polita guretzat. Orduan, erantzuna emateko antolatu ginen eta lehen ekimena Egunero hurrengo egunean kalean izatea izan zen. Ondoren, lan talde osoa bildu eta batzorde ezberdinetan antolatu ginen. Ez da erraza hainbeste pertsona artean koordinazio ona izatea, lana txukun egitea, baina Egunkariaren sorrera errekurso gutxiekin egin genuen, lan taldeari

esker atera ginen aurrera. Eta, orain ere, egoera zailenenean ere aurrera egin dugu. Hasieran ikusle bezala egon ginen, zer pasako ote zen, epailearen zain, baina agerian geratu zen erabakia politikoa izan zela eta, Egunkariarena bukatu zela.

Helburua lortu duzue. Uda aurretik euskarazko egunkari berria kalean egongo da.

13 urte ez dira alperrik pasa. Egunkariarekin oinarri sendoa lortu genuen eta hortik abiatzen gara proiektu berria martxan jartzeko. Gainera, gizarte eragile ezberdinen partaidetza lortu dugu. Proiektu irekia izatea nahi dugu, parte hartzailea. Oinarritzko eztabaide-

tan ez gara sartu. Egunkariako 11 oinarriak bizirik baitaude.

Zerbait aurretikerik ba al duzu?

Ekaina bukarran kalean izango da. Bi fase izango dira; uda amaiera arte 2 edo 3 gehigarri izango dituen egunkaria kaleratuko dugu; hortik aurrera gure helburua egunero gehigarri ezberdinak kalera-tzea izango da, batzuk berriak izango dira. Izena erabakita dago, baina ez dakit publiko noiz egingo den.



OSKAR ANGULO,
EGUNKARIAKO LANGILEA

I l t s r t z

Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

al s p ster a



Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Etik k
Etik kklrn
Is-ikz k(IN / +)
F x z r t z (s - / +)
In nk k(+)
n a k k t k
Enku - s i k w r - , k r l k d u r
Zur - z k u z l - n

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

JU NTX

ur n
k l n u s l U s u r l
S/

Bazkide gutxi aurtengo argazkian

O hiturari jarraituz, aurtenera ere goizeko 11:00-etarako Noauako bazkideok eliza aldameneko plazara azaldu ginen bazkideon argazkia ateratzera Sagardo Egunean. Urtean zehar aukera gutxi izaten ditugu elkar biltzeko. Sagardo Eguneko argazkia izaten da horietako bat, baina, aurtenera, bazkide gutxi bildu ginen. Batzuk orduarekin gogoratu ez, eta berandu azaldu ziren. Lastima, baina hurrengo urtean orduarekin finago ibili, hitzordua zerbaitetarako jartzen da eta.



Hasiera ona eman zaio "Plis plas txalo ta jolas" egitarauari

Azken bi asteburutan Plis plas txalo ta jolas egitarauko ekitaldiak izan dira Santuenean eta Zubietan. Maiatzaren 17an Santueneako eskola txikian Eriz magoa izan genuen, eta ume asko bertaratu zen. Saio bikaina eskaini zuen Erizek, bere karta joku eta magia saio ezberdinekin ume eta gurasoak aho zabalik utzi zituen. Maiatzaren 24an izan zen hurrengo hitzordua Zubietan eta han ere ederki pasa zuten umeek. Euskal Txokoetako begiraleek tailer ezberdinak prestatu zituzten eta arratsalde pasa atsegina egin zuten.

Plis plas hasi besterik ez da egin. Maiatzaren 31an Kalezarren Kroketa Zopa egongo da. Ekainaren 7an Aginagan Kulkik arratsalde pasa atsegina eskainiko digu.



Udako kanpaldiak: Izena emateko azken egunak

Noaua! Kultur Elkarteak, beste herrietako euskara elkarteekin batera antolatuta dituen kanpaldietara joan ahal izateko, matrikulatzeko epea amaitzean da. Oraindik ez baduzu Lizarrara joateko izena eman, argi ibili, izan ere, epea maiatzaren 31n amaitzen da eta.

Matrikula 200 euro da. Etxean ez baduzu matrikula orririk, lasai egon, Noaua!n bertan baditugulako. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 943 36 03 21 telefonora eta edozein zalantza argituko dizugu. Gogoratu Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako haurrak joateko aukera dutela. Epea uztailearen 1etik 14ra bitartean izango da. Beraz, ez galdu aukera eta udan denok Lizarrara!

Kale Nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olandegia - Gozotegia

L A B E - G O X O

L T I L L E

ITU GINTZ G SET E GINTZ

I N S T L K U N T Z K

IZTITX K I.F. (3) 3 2 35-3 33
E.H.F. M I 21

MIKEL

IZ GI E

ELEKTIVITE

el 11 - 11 111

Kirola eta festa uztartuko ditu Usurbilgo II. Pilota Asteak

Kirola eta festa uztartu asmoz antolatu zen duela bi urte lehen aldiz pilota astea. Bigarren edizioa ekainaren erdialdean egingo da eta egitarauan badira deigarriak diren deialdiak.

Pilotazetasuna bultzatu nahi zen. Bide batez, konpetizio ikutua kendu eta festa bultzatu nahi zen. Eta helburua bete zen duela bi urte eginiko Pilota Astea. Ildo beretik dator aurtengoa. Aurrekoan bezalaxe, honakoan ere Bertso-Pilota saioa antolatu da. Hauek dira plazara irtengo direnak: batetik, Xabier Legarreta-Joxe Urdangarin. Eta botilero, Jexux Mari Irazu.

Bestetik, Mikel Elexpe eta Kerman Rekondo eta botilero, Andoni Egaña.

Saio hau nabarmentzen bada ere, badira ikusgarriak izango diren beste deialdi ba-



PILOTA FESTA EKAINAREN 12AN HASIKO DA.

tzuk: herriko haurrek pilotari profesionalekin egingo duten saioa (ekainaren 12an). Edota, neska eta mutilen arteko pala saioa. Izan ere, pilotaren adar ezberdinak bildu nahi izan dira. Bote luze herrikoia egingo da eta baita joko garbi partidak zein zesta-punta saioak.

Aipatzekoa da, halaber, egun horietan, Motzaenean zabalik izango den erakusketa, Usurbilgo Pilota Txapelketari buruzkoa.

HERRIKO PILOTA TXAPELKETA, FINAL LAURDENETAN

Aurrera doa Usurbilgo XXXI Txapelketa Nagusia. Maiatzaren 25ean jokatu zen lehen final-laurdena. Gainontzekoak hauek dituzue.

MAIATZAK 31, LARUNBATA

19:00etan, gazteen mailan: Portu-Orena/ Beobide-Gurrutxaga. Helduen mailan: Izagirre-Txapartegi/ Errasti-Oteiza.

EKAINAK 1, IGANDEA

11:45ean, gazteen mailan: Etxebeste-Elizalde/ Irazustabarrena-Odriozola. Helduen mailan: Lasapastriain/ Erroizenea-Arruti.

EKAINAK 7, LARUNBATA

19:00etan, gazteen mailan: Asperarte/Loiarte-Eraso. Odriozola. Helduen mailan: Huizi-Mintegi/ Sorarrain-Zapirain.

Usurbilgo II. Pilota Astearen egitaraua

EKAINAK 12, OSTEGUNA

18:00.- Herriko haurrak profesionalekin entrenamentua pilotalekuan. Ondoren afaria.

EKAINAK 13, OSTIRALA

22:00.- Hernaniko neskak Usurbilgo mutilen aurkako dema. Palaz: Goiatz M.- Amaia M. / Haritz Z.-Oidui U. Ondoren, pilota partida: Oiaga-Arretxe / Huizi-Errendona.

EKAINA 14, LARUNBATA

11:00.- Xarea, Paxaka eta Bote luzea.

Barrene herrikoia. Xiberotarrekin partida (Aezkoa)

18:00.- Aginagako Aristitxo pilotalekuan Joko Garbi (Zubieta). Zesta Punta. Pala partida

EKAINAK 15, IGANDEA

11:30.- Gipuzkoako I. Txapelketa Herrikoiairen finalerako errebantxa: Usurbil-Hernani. Eskuz: Leko-Harkaitz/ Rekalde -Zabala.

12:30.- Bertso-pilota.

Xabier Legarreta eta Joxe Urdangarin, botilero: Jexux Mari Irazu.

Mikel Elexpe eta Kerman Rekondo, botilero: Andoni Egaña.

Egun hauetan, Usurbilgo pilota txapelketako argazki erakusketa Motzaenean.

Antolatzaileak:

Zubieta Pelota Elkarte, Andatz-Pe Kirol Elkarte, Peña Pagola Elkarte, Bota Punttuba Bertso Eskola

Babeslea: Usurbilgo Udala. **Laguntzaileak:** Euskadiko Kutxa, Ikaspilota, Noaua Kultur Elkarte

Hurrengo saioak !

ARETO FUTBOL TXAPELKETA

Maiatzak 30/ ekainak 1

Seniorrak, lehen fasea: **A Taldean**, Karobi Taberna-Txuri Beltz / Rabo Penev-Tanger/ Akerra Gaztetxea-Txapeldun Taberna. **B Taldean**, Nunca Mais-Xerebros SA / Patri Jatetxea-Beti Alai / Egunkaria-Irrati Taberna.

Emakumeak, lehen fasea. Iufi-Psikosis Toxika /Lasarte Oriá Aurrera-Hiii Balee!!

Ekainak 7/8

Seniorrak, lehen fasea: **A Taldean**, Akerra Gaztetxea-Txuri Beltz / Tanger-Karobi Taberna / Txapeldun Taberna-Rabo Penev. **B Taldean**, Egunkaria-



Xerebros SA / Beti Alai-Nunca Mais / Irrati Taberna-Patri Jatetxea.

Emakumeak, lehen fasea. /Lasarte Oriá Aurrera-Iufi. Hiii Balee!!-Psikosis Toxika.


Oharra: Norgebiagoa guztiak, kiroldegian.

PILOTA

Usurbilgo II. Pilota Astea
Ekainak 12/ekainak 15.

Usurbilgo XXXI. Txapelketa Nagusia

Final laurdenak: maiatzak 25/ ekainak 7.



Arantza Mendizabal: "Oraindik lan asko dago egiteko"

Ikastolaren Eguna ekainaren lehenean ospatuko da. Aurtengo jaiak, Arantza Mendizabalentzat behintzat, berezia izango da. Iaz arte irakasle lanetan aritu ostean, jubilatuzioaz gozatzeko ordua iritsi zaio. Aitzaki honen eskutik, Arantzarekin hitz egiteko tarte bat hartu dugu.

Arantza Mendizabal arrasatearra da jaiotzez eta 16 urterekin hasi zen lanean, idazkari bezala. Antza denez, gustura ez eta lanari utzi gabe, ikasten jarraitu zuen. 22 urterekin magisteritza amaitu eta ikastetxe pribatu batean jardun zuen urtebetez. Baina Arantzaren nahia bestelakoa zen. Elbira Zipitriaren pedagogia berritzailea jaso nahi zuen eta gainera euskaraz irakastea erakargarria egiten zitzaion. Arantza Mendizabalek esan digunez, "Elbiraren pedagogia ekintzaileria izateaz gain, haurren bizipenetan oinarritzen zen. Geroago, izen ofizial hori jarri zioten: pedagogia eraikitzailea". Elbiraren tesiak izan zuen harrera pozgarria izan zela aitortu digu Arantzak.

Elbira Zipitriarekin urte bete egin ondoren, 1966an Lasarte-Oriako ikastolan hasi zen lanean. Azken 22 urteak, ordea, Udarregin egin ditu.

Kanpora ikastera joatea ia pentsaezina zen garaian, eskola berria jasotzeko grina izan zuen Arantzak: "Elbiraren ondorengoak bideak irekitzen saiatu ginen. Gure ezjakintasuna arindu nahiak eta gurasoen fedea eta ausardiak bultzatuta, bide asko urratu genituen aberasteko: Frantziako Freinet-entzatzat funtsezkoa zen haurra ulertzeko senti-

bilitatea; eta, Bartzelonako "Rosa Sensat" eskolak hezkuntzari ematen zion estruktura sendoa; ekarpen aipagarriak izan ziren gure ikastolako pedagogiaren ibilbidean".

Era berean, proiektu honetan murgildurik zeuden gurasoen ausardia goraiatu nahi du. Haien konfidantza eta parte hartzea ezinbestekoa gertatu omen zen. Aurrera egiteko bultzada handia izan zen gurasoen parte hartzea. Orduan lan asko egin bazen ere, oraindik asko dagoelako egiteko uste du.

Bistan da irakaskuntza izan dela gure protagonistaren zeregin nagusia. Hala aitortu digu, baina eman baino gehiago jaso egin duela adierazi digu Arantzak: "irakasleak haurrei irakasteko omen daude. Nire kasuan ez dakit, jakin nahiko nuke nork nori irakatsi dion gehiago".

Jakina da gure jarrerak haurrengan isalatzen direla neurri handi batean behintzat. Haurrengan fedea dugunean, bera izaten lagunduko diogu. Era berean, besteekiko ikuspegia baikorra dugunean haurra irekiago garatuko da baita irakaslearekiko ere".

Iaz jubilatuta zen arte, ibilbide luzea osatu du irakasle ohi honek. Anekdotak ez zaizkio falta, eta horien artean bada bereziki gogoan duena: "agur-afarian lankide batek bota zidan losintzarik ederrena, eta benetan eskertu niona; teoria baino, haurrak pertsonak bezala hartzeko nuen jarrera zela nigandik jaso zuena. Alegia, umetatik denok dakigulakoan nago".

Esan dugu, atsedena hartzeko garaia iritsi zitzaion iazko ikasturte amaieran.

Dena den, egunero jardunean lasaia go dabilena esan digu: "Lasaiago nabil, amazaintzeko denbora hartzen dut eta hasita neuzkan ikasketek jarraitpena emateko aukera dut; gogoz ari naiz".

Laster, gainera, amama izango da. Pozik dago eta haurra besoetan hartzeko ilusioz.



ASKO IZAN DIRA ARANTZAREN ESKOLAK JASO DITUZTEN IKASLEAK.

Ikastolaren

Maiatzak 30, ostirala

9:30etan krosa. LH eta DBHko ikasleek futbol zelaian. 15:00etan LH eta DBHko ikasleei zuzendutako bertso saioa. Tokia: Ikastola berriko aretoa.

Ekainak 1, igandea

9:00etan txistularien esnadeia. 9:00etatik 11:30etara LH eta DBHko ikasleen jokoak. 11:00etatik 13:00etara ikasleen eskularen erakusketa. Tokia: Ikastola berrian. 12:00etan HHko umeen jaialdia: "Haisu Urlur" emanaldia Tokia: kiroldegian. 14.00etan herri bazkaria.

ERRAZ IN

Igeltzer tza

1 119

K I N u s , l
T l f 3 3 7 2 7 1 3 5 2 5
S n t u ■ M 2 2 5 5

H n k n U z n n , s l z

USU ILG H TZ KLINIK

FE N N E FZ-M SS NENNINGE
NT NI E N L UIZ E

K I N u s , 2 1 C
T l f 3 3 7 7

2 1 7
USU IL

PATRI

JATE TXEA


- Eguneroko menuak
- Plater kobinatutak
Ogitartekoak

Tel: 943 36 27 25
Kale nagusia, 14

Lehiaketa !

AKETA! LEHIAKETA! LEHIAKETA! LEHIAKETA! LEHIAKETA! LEHIAKETA! LEHIA

- Hiru galderei hauen erantzunak ezetz asmatu? Eta nori lortzen dituen puntu gehien...
1. Zein urtean eman zitzaion hasiera Alkartasuna Sindikatuari? (1 puntu)
 2. 1999. urtean zenbat diru bildu zen Usurbilen Gara egunkari berria sortzen laguntzeko? (3 puntu)
 3. Usurbilgo ibilgailuen erroldan, ba al dakizu zenbat dauden sailkatuta turismo bezala? (5 puntu)



Erantzunak bidaltzeko azken eguna ekainak 8

Saria: Joserra Senperenaren "Blues pasadizoak" eta Ochote Ozenkiren "Festara" musika cd-ak.

Aurreko jakiteren erantzunak:

1. Zein urtean ospatu zen Iñaki Sagardo Eguna Usurbilen? 1981. urtean
2. Zenbat sagardotegi egun bizi Sagardo Egunean denera plaza? Guztira 40 sagardotegi egun ziren. Hala ere 42 erantzun dutzuenoi onteat eumun diruzegi, izan ere egun berean sagardo eguneko arrolatzaileek horrela esan baitzuten.
3. Nor izan da aurtengo Sagardo Eguneko sagardo botatzaile irabazlea? Iker Muguriza usurbildarra



Puntuazio gehien lortu dutenen artean zozketa egun ondoren irabazlea JOXE RIPIAU izan da. Egunkariako karmiseta zoragarria eta "XUXFN", euskaraizko zuzentzaile ortografikoaren cd-a irabazi ditu. ZORIONAKI jaso ezazu saria Noauako egoitzan

SAILKAPEN NAGUSIA

Joxe Mari Azpitox.....	61
Joxepi Alkorta.....	59
Arantxa.....	57
Amaitia.....	54
Itxar Dorronsoro.....	50
Joxe Ripiau.....	49
Olaex.....	47
Iza.....	44
Mai.....	41
Jesus Tapia.....	41
Aitz.....	40
Ander Aizpurua.....	9

● Usurbilgo jauregia

	Zuhaitz mota	▼	Lapurdiko herria	▼	Jostailu mota	▼	Danbor mota	▼	Dardara
	Basoko animalia	▶	●	▼	Argentinako lurraldea	▼	Ezinen erdian	▼	
	Pl., makina mota	▶							
	Harro-putzak	▶							
Aurpegiak	Bailara	▶	▼				Baldintzetan	▶	
Areatza	Sobera	▶					Kontso bikoitza		
▶	▼				Fosforoa	▶	Su	▶	▼
					Norat atzikia		Maila	▼	
Sarbideak		▶			▼		Musika nota	▶	
Olagarroaren beso							Hasi		
▶					Bokala	▶	▼		
					Har ezak!		Bizkaiko ibaia	▶	
							Zangoaren atal		Tik-..., erlojuaren hotsa
Iorua	Perretxi-koak	▶	▼						Kontsonantea
Nafarroako ibaia	Gauero e-giten dugu	▶							Lantanoa
▶	▼				Hitz etorri apalekoa	▶			▼
					Oxigenoa				
Fruitu tropikal					Hoberenak	▶	▼		

Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.47	11.03	11.20	11.08	11.24	11.39
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.17*	20.33*	20.50*	20.38*	20.54*	21.09*
20.47	21.03	21.20	21.08	21.24	21.39
21.47	22.03	22.20	22.08	22.24	22.39
			22.38	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05		07.30
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.45	08.05		08.30
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.20	09.30		08.15	08.35		09.00
09.00	09.25	09.35	09.55	08.45	09.05	09.30	
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05	09.15	09.40
10.00	10.25	10.35	10.55		09.30	09.35	10.00
10.40		11.05	11.25	09.45	10.05		10.30
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45**	10.05	10.15	10.40
11.40		12.05	12.25		10.30	10.35	11.00
12.00	12.20	12.25**		10.45	11.05		11.30
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05	11.15	11.40
12.40		13.05	13.25	11.45	12.05		12.30
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05	12.15	12.40
13.00	13.25	13.35	13.55 #	12.45	13.05		13.30
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.20	14.30**			13.30	13.35	13.55*
14.00	14.25	14.35	14.55	13.45	14.05		14.30
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.20	15.30			14.30	14.35	15.00
15.00	15.25	15.35	15.55	14.45	15.05		15.30
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05	15.15	15.40
16.00	16.25	16.35	16.55		15.30	15.35	15.55*
16.40		17.05	17.25	15.45	16.05		16.30
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05	16.15	16.40
17.40		18.05	18.25		16.30	16.35	17.00
18.00	18.20	18.30		16.45	17.05		17.30
18.00	18.25	18.35	18.55	16.45	17.05	17.15	17.40
18.40		19.05	19.25	17.45	18.05		18.30
19.00	19.20	19.25**		17.45	18.05	18.15	18.40
19.00	19.25	19.35	19.55	18.45	19.05		19.30
19.40		20.05	20.25	18.45	19.05	19.15	19.40
20.00	20.20	20.30			19.30	19.35	20.00
20.00	20.25	20.35	20.55#	19.45	20.05		20.30
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05	20.15	20.40
21.00	21.25	21.35	21.55	20.45	21.05	21.15	21.40
22.15	22.35	22.45	23.05	21.15	21.35	21.40	22.00
22.00	22.25	22.35	22.55	21.45	22.05	22.15	22.40
22.30	22.55	23.05	23.25	23.15	23.35		00.00
00.00		00.25	00.45	01.15	01.35		02.00
02.00		02.25	02.45	03.15	03.35		04.00
04.00		04.25	04.45	05.15	05.35		06.00
06.00		06.25	06.45				

**Aiarraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

Soilik larunbata gauzez Astegunetan larunbat lanegunetan

Goardiako farmaziak

Maiatzak 30, ostirala

E: De Miguel, Nagusia 32, Lasarte.
G: Etxebeste, Elkano 2, Hernani

Maiatzak 31, larunbata

E: Iturralde, Poligono Trece, 9
E/G: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte

Ekainak 1, igandea

E/G: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte

Ekainak 2, astelehena

E: De Miguel, Nagusia 32, Lasarte.
G: Gomez, Kale Nagusia 14, Hernani

Ekainak 3, asteartea

E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte
G: Etxebeste, Elkano 2, Hernani

Ekainak 4, asteazkena

E: Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte.

G: Cucla, Kardaberaz 48, Hernani

Ekainak 5, osteguna

E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte.

G: Correa, Perkaiztegi 8, Hernani

Ekainak 6, ostirala

E: Urbistondo, San Frantzisko, 1 Lasarte

G: Gorospe, R. Arregi 12, Andoain.

Ekainak 7, larunbata

E: OA, Kontseju Zarra, 11
E/G: De Miguel, Nagusia 32, Lasarte.

Ekainak 8, igandea

E/G: De Miguel, Nagusia 32, Lasarte.

Ekainak 9, astelehena

E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte

G: Zatarain, Elizondo, 6, Andoain.

Ekainak 10, asteartea

E: De Miguel, Nagusia 32, Lasarte.

G: Ansa Ondarreta, 8 Andoain

Ekainak 11, asteazkena

E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte

G: Arzallus, A. Larramendi, 16 Andoain

Ekainak 12, osteguna

E: Gil, Kale Nagusia, 24 Lasarte

G: Diaz, Mayor 19, Andoain.

Ekainak 13, ostirala

E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte.

G: Elizondo, Zumea 20, Andoain

E: Egunez. G: Gauzez.

E/G: Egunez eta gauzez.

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN

Zubieta-Donostia
7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)

7:15* / 9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45

LARUNBATETAN

Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)

12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN

Zubieta-Donostia
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)

11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren Noaua!

Ekaina						
As.	Ar.	Az.	Oz.	Ost.	La.	Ig.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

Hurrengo alea ●

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiardo kiroldegia..... 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A..... 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkarrea..... 37 17 51
- Arrate egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) . 47 09 76

Oharrak

Txerrimunik ordainetan

ETXEBIZITZA

- Alokairuan dagoen etxe baten bila gabiltza. Deitu telefono honetara: 670 532 443
- Etxe bat edo lursaila etxe bat eraikitzeke erosi nahi dut Usurbilen. Tlf: 943 314791.
- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. 943 364469.
- Alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Urgentea da. Telf: 943 366 759.
- Konpartitutako pisu baten bila nabil alokatzeke. Deitu 5:30etatik aurrera. 637 193 100.
- Pisu bat saltzen dut. Munalurra 4, 4 A. Tf: 943 37 10 44. 21:00etatik aurrera.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf. 656 759 583.
- Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185.
- Txaramunton 30 m2 ko garaje itxia prezio onean, 24.821 eurotan. Tel: 666 646 847.
- Galtzaragaina elkartean bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- Galtzaragainan 200 eta 300 m2-ko bi bi lokal alokairuan. Interesatuak juntako kideengana jo.
- Galtzaragainan 20 m2-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. Goiko pisuan. 678 81 52 77.
- Garaje itxiak saltzen ditut, Kale Nagusian. 30 m, 18.000 euro. 15 m, 7.800 euro. 26 m, 9.000 euro. Telefonoa: 656 759 583.
- Peugeot 205 salgai, SS-4445-W. Salgai, 900 euro. 943 360 599.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Neska bat eskaintzen da umeak, etxeko lanak edo pertsona helduak zaintzeko. 619 844 556 egun osoz.
- Eraikuntzan aritzeko lan bila nabil. Interesaturik bazaude deitu 619 844 556.
- Pertsona bat eskaintzen da haurrak zaintzeko gauz. 943 371447 (Belen).
- Umeak zainduko nituzke, arratsaldez bi orduz. Tf: 647 220 966 (Mari Karmen).

- Lan bila nabil eta etxeko-lanak egingo nituzke, gauz edo egunez. 620 646 769.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zer-baitetan, Deitu hona: 652 757 495.

Lan-eskaintzak

- Sukaldari, kamarera, tabernari eta garbitzailea behr dugu, jatetxe-taberna berrirako. Deitu 15:00-18:00. Tf. 687 078 356.
- Langile bat behar dugu tabernan lan egiteko, larunbata eta igandetarako. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 943 360 217.
- Kamarera bat behar dugu asteburuetan lan egiteko. Telefono zenbakia: 943 36 33 58.
- Udarregi ikastolan ikasturte berrirako kirol begiraleak behar dira. Telefonoak: 943 361 216/ 943 370 645.
- Tabernari bat behar dugu. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 360 217 - 649 211 665.
- Tabernari bat behar da Txurru tabernan lan egiteko. Interesaturik bazaude, deitu 943 36 00 80 telefonora.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Pelukeria bateko estetika kabina bat alokatzen da. 943 36 19 71.
- Sukaldari, kamarera, tabernari- Argazki kamara bat dut salgai: Pentax MZ 50. Objektiboa 1:4-5.6 35 mm-80mm. Instrukzio liburua. Eramateko boltsa. Zozketan saritua. 625 70 51 14 (arrats-gauetan).
- Volkswagen Santana bat saltzen dut. Telefonoa: 670 987 921 (Jon).
- 8 urteko mutil koxkor baten txamarra galdu da, Reebok markakoa. Inork aurkitzen badu deitu, 943 36 06 43 telefonora.
- Scooter bat saltzen da, 125cc. Interesatuak deitu 607 23 32 55 telefono zenbakira.
- Vespa bat salgai, 200-TX markakoa. Telefonoa: 943 37 03 89.
- Kotxe bat salgai, SS-AP. Elbarrituentzat egokitu. Garajea zaindutakoa. 943 36 43 10 (gauz deitu).



Zorionak Ilargi!

Maiatzaren 13an gure Ilargik 2 urte bete zituen. Zorionak eta muxu handiena aita, ama, Luken eta Herriren partez!



Zorionak bikote!

Ekainaren 12an ezkondu ziren, San Antonio bezperan, duela 55 urte. Zorionak Antonio eta Pepita, seme-alaba eta biloben partez!

JAIOTZAK


- **Amaia Bengoetxea Azurmendi** 2003-V-13. San Esteban.
- **Eider Sukia Lamberri** 2003-V-14. Usurbil.

Txerrimunik ordainetan - Oharrak, doaneko zerbitzuak dira.

Noaua! Kultur Elkartea - Borda Berri, 3
Eguzkitzaldea 20170 Usurbil
noaua.k.e@euskalnet.net



TXIRIBOGA
taberna
pintxoak, bokatak eta
plater konbinatuak
Telf: 943 36 13 98



txirriStra
TABERNA
- Plater konbinatuak
- Ogitarteak
- Pintxoak
Kontseju zaharra, 13
Telf: 943 36 04 66

Agenda !

IKASTOLAREN EGUNA 2003

MAIATZAK 30, ostirala

- 9:30etan Krosa. LH eta DBHko ikasleek futbol zelaian.
- 15:00etan LH eta DBHko ikasleei zuzendutako bertso saioa.
Tokia: Ikastola berriko Aretoan.

EKAINAK 1, igandea

- 9:00etan Txistularien esnadeia.
- 9:00etatik 11:30etara LH eta DBHko ikasleen jokoak.
- 11:00etatik 13:00etara Ikasleen eskulanean erakusketa. Ikastola berrian.
- 12:00etan HHko umeen jaialdia: "Haisu Urlur" emanaldia. Tokia: Kiroldegian.
- 14.00etan herri bazkaria.

EKAINAK 1, igandea

- Eskola Eskola Publikoen XII. Jai Jubietako hipodromoan.

EKAINAK 5, osteguna

- Egunkari proiektu berriaren aurkezpena. Hizlaria: Juan Luis Zabala. 19:30etan, Udarregi ikastolako aretoan.

EKAINAK 30, astelehena

- Odol ateratzea, herriko Osasun Etxean. 19:00etatik 21:00etara.

Musikaren txokoa !



Koldo eta Arantxa, "Zureztat"

Oso gaztetatik hasi ziren elkarrekin jotzen eta bideak irekitzen. Poliki-poliki, Euskal Herrian presentzia handiagoa lortu dute eta, era berean, gure mugez kanpo ere izan dute jotzeko aukera (Katalunia, Andorra, EEBB-San Frantzisko, Boise, Reno...). Trikitixa txapelketa askotan ere hartu dute parte, 1985etik 1997ra bitartean 19 sari garrantzitsu jaso dituztelarik. Lehen diskoa ("Murumendiko Mari", 1996), auto-produzitua izan arren, aurkezpen



dotorea izan zen haientzat. "Zureztat" izeneko hau (TRIKI/ELKAR-2003), beren bigarren diskoa, talde heldu eta seguru baten eskaintza argia dugu, erromeriaren munduarentzat ozonozko bainu berritzaile freskagarria.

"Zureztat" disko zuzena da, moldaketetan soila eta garapenean sendoa, non interpretazioaren metikulosidadetak are ederrago jantzen dituen barruan aurkezten diren 13 kantuok. Diskoa, azkenean, musika herrikoi zintzo eta erakargarria eskaintzeko Iparragirretarren duten grinaren emaitza garдена dugu.

Egin kontu !

Santixabelak begibistan

Gainean ditugu Santixabelak. **E**gitaraua ere oso aurreratuta dago. **L**aster jasoko dugu orriotan festetako egunez eguneko ekitaldien zerrenda.

2003ko Santixabeletako egitarau-diseinuaren lehiaketara 5 proposamen aurkeztu ziren. Jai Batzordeko kideek

aditzera eman digutenez, "kalitate aldetik, maila bikaina erakutsi dute guztiak".

Baina maiatzaren 15ean egindako Jai Batzordeak, 500 euroko saria Carlos Zabala Kasasolari ematea erabaki zuen.



Urtinea

L r k - L r l n r k

L r s r l k - K r k

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55



MAHUKA

G z n t m k u m z k n
m k r r u z t
h m n u r k t u k u z u

Etxeak 1, 3
Tlf: 33 11

TXU

UT

r t



r m u s k r s n

S n Est u k l , 1
T l f 3 3

G L

G

garraioak

ZABOR BILKETA

TELF: 943 37 01 46

Edertu zaituz

herriko ileapaindegietan



ILEAPAINDEGIA

Solariuma eta depilazioak

Etorri aurretik ordua eskatu
Kala Nagusia, 2 Telf: 943 37 28 44



Elexpe ileapaindegia

- Beteleen trukaketa eta permanentea
- Estelka
- Solariuma
- Tatuak

ESTETIKA ZENTROA

Muna lurra, 2
Telf: 943 370462



LIZARRALDE ileapaindegia

Teknika eta joera berriak kolore, mozketa eta orrazkeran

Zubiaurrenea, 6 B Telf: 943 36 19 71



Txaro ileapaindegia

Suru azalaren zainketa
Ile apainketa

Etxebeste, 3 - Telf: 943 371685




**SOLARIUMA
MAKILAJEA
DEPILAZIOAK
MANIKURA**

N•I

943 36 19 51 **ILEAPAINDEGI MISTOA** Zubiaurrenea, 5



intza

- Depilazioak argizari beroarekin
- Depilazioak argizari epelarekin
- Dekolorazioa
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorpuzeko tratamenduak
- Masajea
- Solariuma

Depilazio bat egiteagatik, pedikura bat edo espain-gaina eta bekainak doan

Telf: 943 36 36 41




MANOLI ILEAPAINDEGIA

- ILEAPAINDEGINTZA
- ILERAKO TRATAMENDUAK

Telf: 943 37 13 14
Zubiaurrenea, 10 - 7ak - 3. ordea





Euskaldunagoa? Oso zaila dago.
Independienteagoa?
Ez da erraza.
Pluralagoa? Zein bezain plurala?
Hobea? Hoberena zen.

baina
hobetuko dugu
zure laguntzarekin


Akzioei buruzko informazioa:

www.ektsa.net tlf: 635 733 385
635 733 386



772 BOTO
abertzale eta demokrata

Luismari
Ormaetxea
Imanol Zubiondo
Salome Portu
Josune Urkia
Ibon Beristain



**HERRITARREN
ZERBITZURA**